

# Armanak Uskara

edo

## Ziberouko Egunaria

1909 gerren ourtheko


Jinkoa eta Herria!  
Zuhurtarizona eta lana!  
Eta bizi bethi Uskalduna!  
Iao! Iao!  
I-a-a-a-a-o-o-o-o-o!

Parisen

L. DE SOULLE enian

Vaugirard-eko karrikan, 58<sup>an</sup>.





### BEGITHARTE HORIEK :

- ☉ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.
- ☽ " " Argizagi azken laordena.
- ☼ " " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
- ☽ " " Argizagi lehen laordena.

### OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthaila* 7<sup>an</sup>; — HAOSTE, *baranthaila* 24<sup>an</sup>; — BAZKO, *aphirila* 11<sup>an</sup>; — ERROGAZONIAK, *maiatze* 17<sup>an</sup>, 18<sup>an</sup> eta 19<sup>an</sup>; — SALBATORE, *maiatze* 20<sup>an</sup>; — PHENTEKOSTE, *maiatze* 30<sup>an</sup>; — BESTABERRI, *arramaiatze* 10<sup>an</sup>; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *azaro* 28<sup>an</sup>.

### LAOR THENPORAK :

Martcho 3 <sup>n</sup> , 5 <sup>n</sup> eta 6 <sup>n</sup> .	}	Buruila 15 <sup>n</sup> , 17 <sup>n</sup> eta 18 <sup>n</sup> .
Arramaiatze 2 <sup>n</sup> , 4 <sup>n</sup> eta 5 <sup>n</sup> .	}	Abentu 15 <sup>n</sup> , 17 <sup>n</sup> eta 18 <sup>n</sup> .

### EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :


Argizagi ulhuntze osoa arramaiatze 3 eta 4<sup>an</sup>; pharte ikhousiren da Uskal Herrian, 4<sup>an</sup>, gaian, oren bakhoitzaren eta bigerrenaren artian. — Ekhi ulhuntze osoa, arramaiatze 17<sup>an</sup>; bena ez tie ikhousiren goure Herrian. — Argizagi ulhuntze osoa gorotzila 27<sup>an</sup>. Pharte ikhousiren da Uskal Herrian, goizan, zazpi oren eta erditarik aitzina. — Ekhi ulhuntze phartezkoa, abentu 12<sup>an</sup>, Uskal Herrian ezin ikhousiko diena.









## HANITCH KHASU HOUNI



**Z**IBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigarren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arround. Bostgerren arraldia joan den ourthian hasirik izan da.



## ERRAN ZAHAR



Mithil gaichtoa, urhats baten herabez goizian, hamar beharko dutu egin arratsan.

Nahiago dut asto jasan nezanbat, eziez zaldi egoitz nezanbat.

Nahikariak eder erazten dutu gaiza itchousiak.

Nahi du jakin zouin zen lehen egina, ala zorroa, ala irina.

Neke da beliaz aistore egitia.

Nouizik behin agit daitian gaitzetik houn da begiratzia bethi.





Ogen egiten du houner, pharkatzen dianak gaichtoer.

Ohakoan dena ikhasten, nekez da gero ahazten.

Ouhouñ handiak urkha erazten dutu tchipiak.

Oihal houna khutchan dagoelarik sal daite.

Hounegi dena beretako, ezta azki bestentako.

Orotako ozpin gaichtoena da ardou ezitik egina.

Orritzetan du erhoak houna gastatzen, zuhurak aldiz beria goitiatzen.

Othoi saintiari derauñzano ekhaitzari.

Othoitzen eztakianak Jinkoari, berraio itsasoari.

Sabeldurak gaitz du hora.

Saintu mana, otso hatzana.

Sariak zathitu ondoan agerikoduk zer den hire urphoan.

Sar zekidan lekatuz, jalkhitzen zait horzkatuz.

Sendo nahi dutuka begiak? Loth itzak hire erhiak.

Sentona, agorrilan bidez bahoia, uk hireki ekhita-koa.

Sobera jakintu izanez, gabe zedin acheria buztanez.

Soska soska, biltzen da franka.

Suia datchekonian aizoko etchiari, gogoia emak hiriari.





## OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.

\*\*\*


- ☉ a. o., 6<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 22<sup>m</sup>.
- ☽ a. l., 14<sup>n</sup>, arratseko 6<sup>or</sup> eta 20<sup>m</sup>.
- ☿ a. b., 22<sup>n</sup>, gaiherdi eta 21<sup>m</sup>.
- ♃ l. l., 28<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 16<sup>m</sup>.

## BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren I eta erdiz.


\*\*\*

- ☉ a. o., 5<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 34<sup>m</sup>.
- ☽ a. l., 13<sup>n</sup>, eguerdi eta 56<sup>m</sup>.
- ☿ a. b., 20<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 1<sup>m</sup>.
- ♃ l. l., 27<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 58<sup>m</sup>.




1 Ostirale.	ZIRKONZISION	1 Astelehen.	s. Iñazio.
2 Neskanegun.	s. Makari.	2 Asteharte.	KHANDERALLU
3 <b>Igante.</b>	sa Jeneviva.	3 Astizken.	s. Blasi.
4 Astelehen.	sa Fausta.	4 Ostegun.	sa Jana, Val.
5 Asteharte.	sa Amelia.	5 Ostirale.	sa Agata.
6 Astizken.	APHARIZIO.	6 Neskanegun.	s. Aman.
7 Ostegun.	sa Melania.	7 <b>Igante.</b>	<i>Setuajesimo.</i>
8 Ostirale.	s. Luzien.	8 Asteharte.	s. Johane Mat.
9 Neskanegun.	s. Julien.	9 Astizken.	sa Apolina.
10 <b>Igante.</b> 1.	s. Marzien.	10 Ostegun.	sa Eskolaztika.
11 Astelehen.	s. Teodoso.	11 Ostirale.	A. B. Lourdakoa.
12 Asteharte.	sa Taziena.	12 Neskanegun.	s. Tita.
13 Astizken.	s. Leonze.	13 <b>Igante.</b>	s. Jilbert.
14 Ostegun.	s. Hilera.	14 Astelehen.	<i>Setsajesimo.</i>
15 Ostirale.	s. Phaole, em.	15 Asteharte.	s. Faosti.
16 Neskanegun.	s. Marzel.	16 Astizken.	sa Julieta.
17 <b>Igante.</b> 2.	s. Antoni	17 Ostegun.	sa Hiji.
18 Astelehen.	J. Phetir. Ecc. Jartia	18 Ostirale.	s. Flavien.
19 Asteharte.	s. Kanut.	19 Neskanegun.	s. Konrad.
20 Astizken.	s. Fabien eta Sebast.	20 <b>Igante.</b>	s. Eucher.
21 Ostegun.	sa Añes.	21 Astelehen.	<i>Kinkajesimo.</i>
22 Ostirale.	s. Bizente.	22 Asteharte.	J. Petir. Ant. Jart.
23 Neskanegun.	A. B. Ezkontz	23 Astizken.	s. Petiri Dam.
24 <b>Igante.</b> 3.	s. Timote.	24 Ostegun.	HAOSTE.
25 Astelehen.	J. Phaoler.kon.	25 Ostirale.	s. Zezaire.
26 Asteharte.	s. Polykarpe.	26 Neskanegun.	Elhorr. Khor.
27 Astizken.	s. Johane Kris	27 <b>Igante.</b>	sa Onorina.
28 Ostegun.	s. Amadeo		GOROZUM. 1 <sup>a</sup> .
29 Ostirale.	s. Franz. Sal.		
30 Neskanegun.	sa Martina.		
31 <b>Igante.</b> 4.	s. Petiri Nol.		





MARICHOA edo OSTAROA


Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☉ a. o., 7<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 5<sup>m</sup>.
- ☽ a. l., 15<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 5<sup>m</sup>.
- a. b., 21<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 20<sup>m</sup>.
- ☽ l. l., 28<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 58<sup>m</sup>.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.




- ☉ a. o., 5<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 37<sup>m</sup>.
- ☽ a. l., 13<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 39<sup>m</sup>.
- a. b., 20<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> an.
- ☽ l. l., 27<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 45<sup>m</sup>.




1 Astelehen.	s. LEON, Baion.
2 Asteharte.	s. Zinplize.
3 Ast. IV. Th. B.	s <sup>a</sup> Kamilla.
4 Ostegun.	s. Kasimir.
5 Ost. IV Th. B.	J. K. Lantza eta I.
6 Nesk. IV Th. B.	s <sup>a</sup> Koleta.
7 <b>Igante.</b>	<i>Gorozumako</i> , 2 <sup>a</sup>
8 Astelehen.	s. Johane J.
9 Asteharte.	s <sup>a</sup> Frantzesia.
10 Astizken.	40 Martirak.
11 Ostegun.	s. Konstanti.
12 Ostirale.	s. Gregori, I.
13 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Ufrasia.
14 <b>Igante.</b>	<i>Gorozumako</i> , 3 <sup>a</sup>
15 Astelehen.	s. Zakaria.
16 Asteharte.	s. Ziriaka.
17 Astizken.	s. Patrik.
18 Ostegun.	J. Gabriel, ark.
19 Ostirale.	s. JUSEF.
20 Neskanegun.	s. Joakimo.
21 <b>Igante.</b>	<i>Gorozumako</i> , 4 <sup>a</sup>
22 Astelehen.	s <sup>a</sup> Kiktruda.
23 Asteharte.	s <sup>a</sup> Pelajia.
24 Astizken.	s. Agapit.
25 Ostegun.	A. D. M ANONTZ.
26 Ostirale.	J. K. Odol prez.
27 Neskanegun.	s. Johane Dam.
28 <b>Igante.</b>	PASIONIA.
29 Astelehen.	s. Pastor.
30 Asteharte.	s. Amadeo.
31 Astizken.	s. Benjameñ.

1 Ostegun.	s. Huges.
2 Ostirale.	A. B. Dolor.
3 Neskanegun.	s. Richart.
4 <b>Igante.</b>	ERRAMU.
5 Astelehen.	s. Bizente Ferr.
6 Asteharte.	s. Sisto.
7 Astizken.	s. Herman.
8 Ostegun.	<i>Osteg. Saintu.</i>
9 Ostirale.	<i>Ostir. Saintu.</i>
10 Neskanegun.	<i>Neskan. Saintu.</i>
11 <b>Igante.</b>	BAZKO.
12 Astelehen.	s. Jules.
13 Asteharte.	s <sup>a</sup> Ermenegild.
14 Astizken.	s. Justeñ.
15 Ostegun.	s <sup>a</sup> Perpetua.
16 Ostirale.	s <sup>a</sup> Grazi
17 Neskanegun.	s. Anizet.
18 <b>Igante.</b> 1.	s. <i>Perfet.</i>
19 Astelehen.	s. Leon IX.
20 Asteharte.	s. Teotimo.
21 Astizken.	s. Anzelmo.
22 Ostegun.	s. Suter eta Kaio.
23 Ostirale.	s. Jorji.
24 Neskanegun.	s. Zerazi.
25 <b>Igante.</b> 2.	J. MARK, Eb.
26 Astelehen.	s. Klet & Marz.
27 Asteharte.	s. Zerazio.
28 Astizken.	J. Phaole, K.
29 Ostegun.	s. Petiri m.
30 Ostirale.	s <sup>a</sup> Katalina.





## I. — OTOMOBILEZ... JINKOA GANAT



**H**itz hoietarik uduri zaie, agian, irakourzale zounbaiti nahi dutugula suzko karroucha phezu hoietan sarerazi, eta, brrrr, brrr, brrr, brrr, airetan gora, odeiak beno gorago, ekhia, argizagia, izarrak beno gorago, zeliala karraskaz helerazi, hanko dohatsiak izieraziz zer den tarrapata gaitz hori... Ez holakorik ez; Elias profetaren mirakulliaren berritzeko indarrik eztugu; bestalde badakigu zelialat joaiteko ardurako bidiak eta lagungoak beste gisako direla.

Bena guk dugun chedia hau da : beitira mundian, han heben, gizon zounbait bai ere emazte bakhoitz elibat, kaseta gaistoek edo komersa galgarri elibatek gogoak okherturik dutienak, nahi geneizke ahal baguntu chuchentu; orotan gainti, goure antsia da argi aphur baten emaitia kintzia ountsa plomaturik diener, haiek berere, gogoak okhertzera eitz eztitzen, sobera ardura entzuten ahal dutien elhe inganagarri bezañ gezurti elibatek.

Arren, ezar ditzagun algarrekin elhestan bi gizon, bata errejent bat, mouda berrikoetarik, errelijioniari egiten dian gerlari esker inspetur igaraiteko bidetan dena, bestia aldiz laborari bat, bere katichima ountsa ikhasi diana eta bere ofizio ederrari doatzen jakitate beharrenez dunturik dena.

Biak elhestan ari dira bide berri bazterrian, zerrallu bat arte, errejenta kaseta gorrienetarik bat es-



kietan, laboraria aldiz, dallu igouñari bi eskiak etche-  
kara, chutik. Houna noun boullta gaitz batetan eta  
herots handi batekin igaraiten den *otomobil* bat,  
alhatzen ari ziren behi eta zamariak, bide berri khan-  
tutik lauhazkan hurruntzen dutialarik, eta, zuhañ  
adarretako ostoen petan gorderik ziren tchori guziak  
ohiltzen.

Errejentak erraiten deio ordian laborariari :  
« Ikhouisi duka zouñen eder zen karroucha hori eta  
zouñen zalhe igaran den. Egunko egunian gizonaren  
gogoa hañ hurrun hedatzen duk noun gaiza miragar-  
rienak, bere jakitatiari esker, egiten beitu; ezi  
eztuka ouste mirakullu bat bezala dela holako tresna  
baten gogatzia, egitia eta gisa hortan erabiltia? »

Laborariak : — « Jauna, ezagutzen dit gaiza mira-  
garriagorik eta mirakullu handiagorik; beren sin-  
hestia oro jakitatan ezarten dien gizonak, mundiaren  
hastetik hounat igaran diren zounbait mila ourthetan,  
ordu zizien holako zerbait goga eta egin; ezi, gai oroz,  
ezzutiena ikhouston, begien altchatzia bezañ segur,  
*otomobil* saldo bat, oro urhe kolore eta argi argia,  
behinere algar tokatzen eztiadak? Edireiten dit gizo-  
nak eztiada hortik urgullu hartzekorik, ezi lehen *oto-  
mobil* egiliak, Jinko hounac aspalditik mouldiak era-  
kasten zitzotzun; eta gero airian orano. » —

Errejentak : — « Airian ere gizona paseiatzen duk  
orai; ez othe dutuk entzun aiphatzen tresna berri eli-  
bat frantzesez deitzen beitu: *ballons, aviateurs,*  
*aéroplanes*. Orano zounbait dembora eta ikhousiko  
duk gizona, — hik diroan eta nik ikhouisi eztukedano  
ezagutuko eztudan — Jinkoa bezañbeste datekiala. »

Laborariak : — « Bai jauna; igante oroz erosten dit  
*Eskualduna* delako kasetak, goure Aiten errelijonia,  
usantchak, mintzoa, sail houn eta ohoragarria hañ  
azkarki begiratzen dutiana; eta han irakourtu dit,  
orano berriki, tresna hoietarik batetan meskabi diren  
bi gizonen istoria. Eta hor ere, *otomobiletarik* bezala,




ene gogoa badoazu chuchenka Jinkoa ganat. Ori, ikhousi tuzia, doi doia, zuhañ adarretako ostoen arte-  
tik noula hegaltatu diren tchori saldo elibat?


« Hor dutuzula *aviateurs, ballons, aéroplanes* hobe-  
kienik eginak; hoietan moulda bitze beren aireko  
tresna berriak, goure demboretako gizon urgullutsiek;  
ez zitzetzu ordian amurratuko eta eztizie berek minik  
hartuko.

« Aldiz, zuk, ene errelijioniaren kontrestatzeko,  
beitirozu eztuzula Jinkorik badela sinhetsiko houra  
ikhousi eztukezuno, zer erran ziniro, ihardets bane-  
kezu eztudala nik ere sinhetsiko ezagutzerik batere  
baduziela zuk eta otomobil eta aireko tresna egilek,  
ene bi begiez zien enthelegia ikhousi eztukedano?  
Gizonen lanek, nahi bada hutsune zerbait nountik  
edo nountik badien, salhatzen dizie beren egilen  
gogoa eta thalentia; hala hala, batere hutsunerik eta  
erraiteko biderik eztien eta gizonen egiten ahal ez  
dutien lan batzuek, behar likezie sinhetserazi badela  
haien egile bat, ikhouston ezpadugu ere, hanitchez  
gizon handienak eta jakitantenak beno handiago eta  
jakitango dena. Houra duzu Jinkoa. »

Jaun errejenttoak, bere jakitate ororekin, gogatu  
zian hobena ziala ichil ichila egoitia, eta laborariari  
agour llabur eta hotz batemanik, joan zen hantik bere  
kasetan maitia zabaltzen zialarik.



## II. — LAMIÑEN DEMBORAN



**N**OUIZPAIZ, badu aspaldi, Josef tchipiak zartatto  
bat ukhenik bere haorzañaren ganik oiñu egin  
zian bere khechian :



« Ez othe zait nihour ere jinen neskato hountarik libratuko naianik ? » Eta houna noun agertzen zaion lamiña bat, harek emaiten beiteio hari mathacha bat eta erraiten : « Ene haurra, hor diala hire bizitziaren haria. Adinian aitzinatzeko, aski duk hari horren thiratzia ; bena eztezala ahatz hari horren beste burian hiltzia dukiala. » Hori erran eta arrount lamiña itzaltzen da.

Haurttoa, boztarioz, jauzten hasten da eta haria thirutzen du. Batbatetan, hamar ourthetara heltzen da, eztu haboro haurzañik khantian. Bena eskolan ezarten die, kolejio batetan. — « Balio zian, dio Josefek bere beitharekin, bai balio zian haurzañari ezkapatziak eskola egile hoi en aztaparren piala erorteko eta bethi edo izkiribatzen edo liburietan ikhasten aritzeko. Aserik niz bizitze hountaz ; dugun goure bizitzia aitzinachiago heleraz, dugun thira haren haritik phouchka bat. » — Eta erran bezala egiten du.

Oraiko aldian, eskola aphur bat eginik, marcthant baten etchen da, konfidantchazko kargu batekin, haren sal-erospenetako izkiribien eta khountien egile, bena goizetik arratsiala bethi ber zerrategian jarririk eta luma eskian edo beharrian.


Azkenian erraiten du bere buriari : — « Holako bizitzia houn da ni bezala adinian aitzinatzen ahal eztirenentako. Bena hobe da, ahal denian, besten etchetik beriala igaraitia eta mithil izan lekhutan etcheko-jaun izatia. » — Eta berriz ere haria thirutzen du.

Oraikotik, ausarkichka haria jin beitzai, edireiten du bere buria bere dian salgia batetan, bena badutu ordukoz berrogei eta hamazortzi ourthiak eta aita familiazko da. Badutu ere hirour seme zouñtarik gehienak egiteko gaistoetan aita eman hountarzuna galdu beitu ; bigerrena franko gisako agitzen da, bena hirourgerrenak jandarmak ondoan dutu bizi-moulde gaistoa eraman dialakoz, holaz bere familiari



phena eta desohore handia jarraikerazten dialarik. Aita dohakabiak bihotzmin hoiien erdian thiratzendu orano baratzen den hari phouchka eta hiltzen da. Bazian doidoia hamar hilabete hari mathacha ukhen ziala lamiñaren eskietarik.

Alegiako istoria horrek erran nahi du eztela zelupian adinik ez heñik bere gorabeherak ezdutianik eta hoberena dela bethi ountsaren egitia, zeliaren irabazteko, eta nourk berekin dutian jenter biziaren ahal bezañ chuchen eta irous igaraneraztia.



### III. — GOBERNAMENTUKO ESKOLEZ



**B**ATERE haurren erezeko amorio chuchenik eta haien ountsan eraikiteko antsiarik badien aita eta amek gogoeta seriousik beren artian erabili behar izan die, igaran setemereko hirourgerren igantian, beren elizan entzun irakourtziaeren ondotik.

Egun hartan, herri orotako erretorek pharte egin die beren populier Frantziako jaun kardinale, archibisko eta aphezkupe ororek sinatu dien letera batez. Han erranik da hitzez hitz aita familiazkoer: « Balinbaduzie eskoletan haitia zien haurren eraikiteko, zien kontzentziak egiten deizie eginbide bat haita dezazien eskola hora noun zien zuzenak oro hobekienik begiraturik beitirateke. Zer nahi izanik, begia ethekiko duzie gobernamentuko eskolari, legiak emaiten deitzien bidiak oro hartuz haren etchekitzeko erreligionari buruz behar den errespetian. Aldiz eskola hartan zien haorren sinhestia erriskian balitz, ordian, behar zuntukie haorak begiratu eskola hartarat joaitetik, noulako nahi izan ditian kontzentziazko egin-



bidè horren frantzez houn eta khiristi houn bezala bethatziak ekhar ahal leizketzien ondoramenak. »

Frantzia guziko Elizaren aitzindari lehenak oro hola mintzaten entzutiaz estonaturik denak, eztaki edo eztu nahi ikhousi zer damu handiak egiten dutien gobernamentuko eskolek. Damu handia, haurrari idokiz Jinkoaren eretzeko eginbiden orhitzapena eta errelijioniari zor dian sinhestia : hori beita egunko egunian Frantziako errejentete errejentsa saldo handi baten lan greuthgarria. Goure departamentian berian badira, gogo hortako, hanitchek ouste dien beno eskola-egile haboro.

Orai diala bost ourthe, agorrilaren 4<sup>ian</sup>, Baionan *M. Francière* goure prefet zenak (orok ohart dugu trempurik hoberenian eskola khiristien kontre pheredikatzen ari zelarik subitoki gaizkitu eta bi oren gabe egun hartan hil zela jaun hori) — egin zian goure departamentuko hullan lau ehun errejent eta errejentsen bilkhura eta junta hartan jaun andere hoien saldorik handienaz galthe ginik izan zen : « *que soient supprimées du programme la partie relative aux devoirs envers Dieu ainsi que les instructions qui s'y rapportent.* » Ordukoz holako saldoa bazenian galthatzeko eskoletako liburietarik khenturik izan litian Jinkoaren eretzeko eginbidiak aiphatzen zutien erakaspentak, ehi da ikhoustia egunko egunian gogo hortako errejent eta errejentsen nounbria eztela tchipitu.

Oraiko eskola publikoak zer diren jakin nahi badugu, aski dutugu irakourtzia inspetur gehien batek *M. Dequaire Grobel* izenekoak bere peko inspetur, errejent eta errejentser egin gomendiak : « Le but de l'école laïque n'est pas d'apprendre à lire, à écrire et à compter; non elle est un engin de guerre contre le catholicisme. *L'école laïque a pour but de former des libres-penseurs.* Elle tromperait l'espérance que nous fondons sur elle, si elle se renfer-



mait dans une respectueuse neutralité. L'école laïque apprend à rejeter le dogme. Lorsque, à treize ans, il quitte les bancs de l'école, *l'élève laïque n'a pas profité de l'enseignement de ses maîtres s'il reste croyant.* L'école laïque n'aura porté ses fruits et donné sa juste mesure que si l'enfant a *renié la foi de ses pères* et renoncé à la foi catholique. *L'école laïque est un moule où l'on jette un fils de chrétien et d'où s'échappe un renégat.* »

Houna ber hitzak uskaraz; lehenik frantsesez eman nahi izan dutugu, diren bezala, gobernamentutarren eta errejenten gogoko diren gizonek eztezen ukhen eskurik erraiteko gihaorek thorpekeria horik gogatu eta izkiribatu dutugula : « Gobernamentuko eskolaren urhenburia ezta irakourtzen, izkiribatzen eta khountatzen erakastia; ez, eskola houra da gerlako tresna bat katolikotarzunaren kontre. Eskola haren chedia da *libres-penseurs*, — erran nahi beita erreligionerik batere gabeko gizon eta emazte — elibaten mouldatzia. Harenganik egurukitzen dutugunak elitzazke egin, egon baledi errespetuzko ichiltarzun batetan erreligionari buruz.

« Eskola harek erakasten du doktrinari ukho egiten. Nouiz eta ere hamahirour ourthetan haurra jalkitzen beita eskola hortarik, ezdate baliatu bere eskola egilen erakaspenez, sinhesterik batere baratzen balinbazaio. Gobernamentuko eskolak ezdutuke bere frutiak ekharri, ez eta bere ahal osoak egin, bardin haurrak ezpadu ukho eginik bere aiten erreligionari eta sinheste katolikoari. *Gobernamentuko eskola, moule bat da, zouñtara ourthoukitzen beita khiristi seme bat eta zouñtarik jalkhitzen beita arnegat bat.* »

*Damu handi bat orano jinkoatan sinhestiaren idokitiak erakharten dutian ondoajetarik.* Hoi en ikhous-teko aski dugu sogitia tribunaletako egitekoer. Izigarriki emendatzez doa ourthetik ourthiala hoge eta



bat ourthez peko gaizki egilen nounbria. Jadanik 1903<sup>ian</sup> *M. Vallé* ordunko justiziako ministroak erraiten zian : « Egiaren erraiteko, aithortu behar dut, hoge eta bat ourthez peko gaizki-egilen chifriak tchipiago ezari dutugula diren beno. » Eta zertako hori : « lan soberaz, » *afin d'éviter l'encombrement*, berak dion bezala. (*Compte général de la justice criminelle pour 1902, page xxi.*)

Ber gisan mintzo zen, igaran negian subitoki hil den justiziaren ministro *M. Guyot Dessaigne* dei-thia : « *sur 100 enfants dénoncés, 92 ont échappé à toute répression effective.* » (Rapport du 5 mars 1907 sur l'année 1905.)

Goatzan aitzinago, bethi hartuz gobernamentuko gizonen beren chifriak ; igaran egunetan, Pariseko hiriaren berarentako, hanko Poliziako Prefetak eman dutian eta kridaturik izan diren chifrietan, ikhous-ten dugu *1907 ourthian berian*, gaizki egile gazten nounbria emendatu dela *ehunentako hoge eta hameka haborokinen gradoan.*

Eta Pariseko tribunala arrankuratu baita zouñ eskola tarik jalkhitzen ziren gaizki-egile gazte hourak, ediren du Pariseko hiriarentako ehunetarik *biga* jalkhitzen zirela eskola libroetarik eta *lauetan hoge eta hamazortzi* gobernamentukoetarik ; *Seine* departamentu osoarentako aldiz ehunetarik *hameka* eskola libroetarik eta *lauetan hoge eta bederatzu* gobernamentukoetarik.

Jinko gabeko eskolen legiak ondoajetako ukhen behar zian presountegien hutstia : « *eskola bat haboro presountegi bat gutiago* » ziroien lege tzar horren egilek ; eta sarri eskola batentako ezdirateke presountegi bedera ere aski noun ezdutien eizten gaizki egile gaztiak gaztigurik gabe « *afin d'éviter l'encombrement* » lan soberaz, ministro ohiak zioan bezala !

Errepublika hounen hastian ez zen *hoge militar*a heltzen hoge eta bat ourthez peko gaizki egilen



nounbria ourthekal, orai *berrogei milari* hullanturik da!

Eta ondorio hoiien lagun, zounbat besterik! Ourthekal emendatzez doa beren buria ehaiten dien haurren eta gazten nounbria! Ourthekal tropetako aitzindariak plañi dira soldado berriek edo eztiela izkiribatzeke ez eta irakourtzeko jakitaterik, holakoen nounbria emendatzen dela bethi; beste gainti bate-tik aldiz ezdutiela nahi beren gehienen maniak sin-hetsi, dioielaric, beren errejentek erakatsi deiela drapeua ala chathar bat ala kotapillot bat ber gaiza dela, nazione guziek ber herri bat egiten diela, ger-larik balitz, etsaiaren aitzinian armak ourthouk eta ihes joan behar dela gibel edo gehienak eho eta etsaiari eskia eman!

Horra zertaraturik giren, Frantzian, guk izentatu deputatu eta zenatur lege-egilen kausaz. Errepublikaren hastian goure eskolak khostatzen zeizkun go-berniari eta herrier ourthekal *hirouretan hogei eta hamar miliou*; eta ordian eskola egilek, beharrenak erakasten zutien, berek jenten ororen konfidantcha eta estimia handi zutielarik. Orai, eskolak khosta-tzen zaizku *berrehun eta berrogei miliou* ourthekal eta eskola egiliak ez dirate gehiago aita eta ama familiaz-koen laguntzaliak haurren eraikitian, bena bai *framazouen mithilak*, haurrer errelijioniaren galerazteko, eta, bozka egunetan haien aiten bethi okher botzen emaitera erakharteko.

Orano ezkira hortarat helturik goure *Ziberoan*, nahi bada han ere, guneka, agitu diren erakasliak dudako dela Jinko baten izatia, bai ere errailiak eztela Jinkorik. ez ifernurik, ez beste mundurik. Zer izaten ahal dira oraiko errejenten ordari gehien framazouek igorriko deizkien eskola egiliak?

Bena Frantzia barne hortan orai danik edireiten dutugu nigar egingarri diren etsempliak, haiek behar



beikutie iratzarerazi eta phitzerazi batere odol uskal-  
dunik balinbadugu. Houna zounbait.

Lyone hirian 1905<sup>ian</sup> sei anderek, lehenik arrafusa-  
turik ez zielakoz aski jakitate errejentsa igaraiteko,  
ukhen die « *la promesse du brevet et d'un poste si  
elles signaient les statuts d'une société de la libre-  
pensée* ». Jinkoari eta erreligionari ukho egitia, horra  
zeren truku egun izaten ahal den errejent edo erre-  
jentsagoako kargu delikatia !

Nancyko diozesako herri batetan, nahi bada legiak  
manhatzen dian errejenter mithikoak eta neskatilak  
eskolan berhez etchek ditzen, errejentak ezarten  
zutian oro nahas, ber banketan, eta jaun mera eta  
aita familiazko bat joan zeitzonian legiaren oharteraz-  
tera, ihardetsi zeien : « Ziek ezdutuzieia aberiak ber  
gisan ezarten zien barrukietan ? » Gaicho haurrak ;  
aberen pare ezaririk !

Parise khantuko eskola batetan errejentak zazpi  
ourthetako haur bat igaranerazi du mahañ baten  
gaña, bere lagunen ororen aitzinian, eta erran erazi  
deio *Paterra*. Haurrak, gaichoa leialki eta federik  
hobenian dio : Goure aita zelietan zirena... — Erre-  
jentak : Zer diozu, zelietan zirena ? Doi doia igaran  
duzu heben berian. Gaicho haurrak aitzina : Iguzu  
egun goure eguneko ogia... — Errejentak. To, to,  
to ! ezteia zoure aita bera okhin eta eztuzia aski harek  
egin ogitik jatia ? Eta holako trufaz eta elhe gaistoz  
haur ogen gabia lotsaerazi zian haren lagunak erriz,  
karkazaz etchekitzen zutialarik.

Noula buhurt etsaiari guduka izigarri hortan ? Ba-  
dira hirour bide : *lehena*, aita-ama familiazkoek oro-  
rek, herri bakhotchian, bat egitia errejent eta erre-  
jentsen erakaspene behar den heñian eta erreli-  
jioniaren errespetian egonerazteko. Errejenta eta  
errejentsa, barne hounekoak balinbadira, haien lana  
aisaturik dateke ; eta, aita-amen batarzun horri esker,  
saihetsialat ezariko ahal dutie liburu gaistoak beren



erakaspén phozoatiekilan. Errejént eta errejéntsa gaisto balinbadira, aisago aita-amak hitzartuko dira, haurren, batek ere, ez eskolalat igorteko, eskola emailia gogoz edo lekhu<sup>z</sup> khambia artino; beste gainti batetarik foutitzen ahal dirateke legen gazti-giez, ezi orok ber gisa eginez gibelteraziko die Ins-peturren, Prefeten, Su-Prefeten, Tribunalen indar guzia. Noulaz kargulanteria hori bere jandarma eta komisari ororekin ausartatuko da herri batetako aita-ama familiatzkoen ororen presou ezartera? Aita-ama familiatzkoen juntak, frantzesez « *Associations des Pères de famille*, » horra arren lehen bidia.


Houna *bigerrena* : Nourk bere herrian, edo alkharren hullan diren, bi, hirour, lau, bost herriek, behar diren sakrifizioen egitia *eskola khiristi eli-baten eraikiteko* eta haietako errejént edo errejéntser bizigarriaren segurtatzeko. Anglaterran, protestant delarik populiaren pharterik handiena, libertate osoa katolikoek badie holako eskolen egiteko, eta hanko kardinale batek zioan, diala zounbait ourthe : « *Balinbanutu eraikiteko eliza bat eta eskola khiristi bat, lehen lehenik loth nintake eskolaren egitiari.* » Ber elhia arra-erraiten die eta ahal oroz obratan ezarten Frantziako aphezakupu gartsienek. Eskola libro egitera ernatu ziren, 1879<sup>ian</sup>, Beljikako katolikoak, goure Errepublikaren lege tzarren uduriko eli-bati buhurtzeko; haien batarzuna ikhousirik erresouma tchipi hortako errejént saldo handi batek, *hamabost ehunek*, utzi zutien gobernamentuko eskolak, katolikoek eraiki eskola libroetan, phaku tchipiangoekin bena kontzentzia phaosian, erakasten aritzeko.

*Hirourgerren* eta azken bidia hau da : Bozka egunetan, ala ditian herriko, ala kantonadako, ala arondisamentuko, ala departamentuko bozkatziak, bethi eta zer nahi izanik edo khostarik, oraiko lege tzar hoién sustengazalen kontre botzaren emaitia eta emaneratzia. Botzen gaizki emaitetik, eta ez nihoun-




tik bestetarik, jin zaizku okherreriak oro; botzen ountsa emaitiak berak osoki chuchentzen ahal dutu.

Ordu baizik ezta, gaizak noula diren ountsa ikhous dezagun; bihar berantegi lizateke eta guk gunuke ogena, Frantziako haurrak Afrikako salbajen haurrak beno sordeis eta dolugarriago balira; eta hobe balukie aberen beren hume izatia eziez eta aita-ama ezachol eta odol hounik gabeko eli-baten haur.



## LABORARIER



### I. — Eznagiak (edo : Laiteries Coopératives).

**I**GARAN maiatzian egin dutu zortzi ourthe, bostpasei laborari utzultzen ziren, Frantzia barne hortako merkhatu batetarik, karroucha batetan eta mintzo ziren hirian egun hartan entzun zien pherediku batez. Hartan laborarien adiskide batek ezaguterazi zeien noula sos hanitch egiten ahal zien beren behien eznetik, plantatzez *laiteries coopératives* direlako eznagiak.

Pheredikariak erakoutsi zeitzen, chifriak berme, zer irabaziak egiten zutien Beljikako, Alamaniako, Danemarckeko erresoumetan herri tchipietako laborariak, eta, aisago aldiz, herri larrietakoek, eznagian bidez. Eta gogoan igaran zien : « Guk ere zertako eztugu ber gaiza eginen ? Bestentako houn dena ez othe da houn izaten ahal gouretako ? »

Ondoko igantian berian beren erretorari galthe gin zeien noula eta zer egin behar zen eznagia baten herrian ezarteko. Erretorak, Beljikala bidaje bat



eginik, lekhun gañen argiak hartu zutian, eta ondoko maiatz leheneko, eznagiabat plantaturik zen herri hartan.

Berrogei laborarik juntatu zutien beren ahalak eta jesaite tchipi bat egin beren hountarzunak berme, eznagiaren plantatzeko, erran nahi beita etche baten hortarakoz behar zen gisan ezarteko, bai eta behar ziren tresnen erosteko.

Etche hartan senhar emazte elibat jarri ziren lanaren egiteko, eta, egun oroz, berrogei laborariak ezni, batek haboro bestek gutiago, ekharten edo igorten die, etche hartara. Khountu harturik da bakhotchak zounbat ezne sarerazten dian, ezni oro boti ezarten da eta eznetegiko gorago aiphatu bi lagunek, ezne-gaña hortako diren tresna berheziekin khentzen die gourhiaren egiteko eta oundarraz egiten dutie gaznak. Lanak oro eskuz eginik dira.

Noula laborarien ororen ezniak ezpeitira bardin houn, kontrolaturik dira ezniak oro, *contrôleur Gerbert* deithurik den tresna tchipi batekin, eta laborari bakhotchari emanik zaio edo gourhi zathietan edo gaznetan, edo haien saltzetik egin sosetan, zer ere jiten beitzai, ekharri dian ezniaren grado; haborochiango edo gutichiango, noulako ere beitateke ezniaren gizontarzun, zounbat ere boutilla ezne laborari bakhotchak ekharri beitutuzke.

Sei ehun arima dira, gorago aiphatu herrian. Herri hortan, lehen ourthian, eznagiako gastietan eta botigoan pharteliant jarri diren berrogei laborariak, ekharri die, egun oroz, hirour ehun boutilla ezne. Ourthe guzian, eginik izan dira hemeretzu ehun kilo gourhi (*beurre*) eta hogeit eta hamabi mila gazna. Geroztik, bai gourhitan, bai gaznatan, zinez emendatu dira chifriak, zeren eta laborari phartelianten saldoa emendatu beita, zeren orano pharteliant haiek behi muta zutienak khambiatu beitutie, ezne haboro emaiten dien behi muta elibatetara.



Zer othe dira eznagia holakoen *laiteries coopératives* deitzen dutien hoiien hobeuniak :

1° *Gourhi gehiago egiten da*, eta houna noula. Nourk bere etchen egun oroz ezne-gaña berhezten zian eta ountzi berhezi batetan ezaririk eizten, kaminet zokho zounbaitetan, aski ukhen artino gourhi mokhor edo gourhi ogi heñ bat lodi zatekianaren egiteko. Gisa horrez, kilo bat gourhien egiteko behar ziren hogeï eta hamar ezne boutillatarik hogeï eta hamalaoetara artino. Eznagiako tresnekin ezne-gañ haboro berhezten da, nounbait hogeï, haboroenetik hogeï eta lau boutilla eznetarik, kilo bat gourhien behar dena.

Bere etchen gourhia egitez, ourthian hirour mila boutilla emaiten dian behi bakhotchetik, laborari batek idokitzen zutian 94 kilo gourhi (31 boutilla ezne heña kilokal) eta saltzen zutian berrogeï eta hamabost sosen ungunia kiloa; ourthian horrek ekharten dutu berrehun eta berrogeï eta hamazortzi libera eta erdi. Herrian eginik izan zen eznagiabat, *une laiterie coopérative*; han ber laborariak ukhen du gourhi kiloa 23 ezne boutillaentako, eta kilo bakhotcheta saldu du lau sos etchen egin beno kharioago. Ourthiaren buruko bazutian saldurik 123 kilo gourhi, haietarik egin beitzian 385 libera eta erdi. Ber behiak eman deio, ourthe bakhotch, ehuneta hogeï eta bost libera eznagia egin aitzinetik beno haboro.

2° *Gourhia hobiago da eta irainkorrago*. Laborariak beren etchetan dutien goitigia arroundetan ezne-gañak khiño hartzen du, beste gaintitik mintzen zikhintzen edo mingasten da, luzazegi begiratu behar beitu nahi dian gourhi mokhoraren aski ukheiteko. Eznetegian ezta holakorik. Ezin chahukiago eznegaña berhezirik da eta egun bakhotch, ber jeitsaldiko ezne-gaña boti ezaririk da, bezperakoarekin nahasi gabe,



oro bardin eta batetan hountzen da gourhiaren egiteko eta eztu nihountik ere erriskik theiuturik izateko, mintzeko ez ere khiño gaistorik hartzeko.

3° *Gourhia kharioago saltzen da.* Eroster chahiago eta hobiago zaie eznagietan egin gourhia eziez eta laborari etchetan egina. Badira guniak noun eznagietako gourhi kiloak egiten beitu hamar, hamabitsos, laborari-etchetan eginak beno haboro.

4° *Laborantchako lanentako arte haboro emaiten die.* « *Demborak sosak balio dutu* » dio angles erran zaharrak. Eznagiari esker, ezta hirialat urhats auher egiterik, ez merkhatietan berheziki udan, ahal bezala, ezdeusetan, etcherat ez arra-ekhartia gatik, gourhiaren noula nahi saltzeko erriskik. Eznagiañaek badutukie gourhi mokhorren galthazale eta erosle segurrak, eta oro ountsa salduko dutie; ezne-ekharler bakhotchari beria, jiten zaion bezala, emanen deie gorago erran dugunaren arau.

5° *Ezña kharioago saltzen da.* *Charente* izeneko bi departamentietan eta ungurunetan, eznagia saldo bat eginik izan beitira, arrount laborariak beren behien eznetik egin die, gutiena bi arditeko bat haboro boutillakal; badira laborariak esprabi beitie, behikal, 57, 60 liberatara ezne-sari emendio sakolan sarthu diela, eznagian ezartiari esker.

6° *Baratzen den ezña hobiago da.* Ezne-gañaren berhezteko tresnak holako direlako ere, esprabirik da baratzen den ezña, laborari etchetako mouda zaharraz ezne-gaña khentu ondoan baratzen dena beno sanoago dela, dijestitzen ehiago, eta, hobeki hazten diala. Bere gañarekin uzten den ezña bezala houn da etchenko apairientako, chahaler lursagar irinarekin nahasirik emaiteko, borthako gizonterazteko, bai ere gazna egiteko.



7º *Behi mutak hobe haita erazten dutie.* Eznagiek bertan laborarier khambia-erazten deitze behi motak. Laneko behar direnak begira edo, hobeki, idiak ezar, eta ezne hanitch emaiten dien behi mutetarik erosten dutie ; ezne haboro, dena hobiago eta ourthe buruko irabazia handiago die.

8º *Laborantcha maitha-erazten die hobekiago.* Laborariak etchekitzen dira hobekiago beren kabaler, haien alhagiak arraheñkiago haitatzen eta hountzen dutie, aberiak hobeki geñhaturik eta haien ezna lodiago da, haien gorotza aberatsago. Laborariak sos haboro eraikiten du eta laborarisak arte gehiago badu bere barneko lanentako eta haurrer kasu emaiteko.

9º *Azkenekoz, laborarien artian batarzuna zaintzen die.* Berhez eta bakhotcha bere gainti ari lekhutan, laborariak bat egiten die beren entresak hola boti ezariz. Arduran ere holako ban botigoek galthatzen dutie laborarien hañ houn diren biltzarre subertiak, hala noula : *Caisse rurale* eznetegien eraikitiaren hasteko behar den dihariaren ukheiteko ; *Syndicat agricole* sorho edo alhorren merke eta ountsa hountzia gatik hounkallu muta hoberenen ukheiteko, laborantchako tresna merkiago eta hobiagoez duntzeko ; *Assurances mutuelles contre la mortalité du bétail* hañ balious ezaguturik diren behien ez noula nahi erabiltera eizteko eta hiltzen direnian, pharteliantek ororek, batek berak hañen nekez egar liroan damiaren egarteko.

Eznagien egiteko behar dira bethe legiak manhatzen dutian kondizione eli-bat. Haietzaz mintzatuko gira beste aldi batez.





## 2. — Zokholer.

Bada irabazpide suberte ountsatto mundu hountan. Oraiko hountan, orano berri artio ezagutzen ezkunia batez mintzaturen gira.

Aspaldian jakin nahian ginen, chuchen chuchena zer zuzen dien zoumbait tchapeldunek, egin-erazten zaitzen lan elibaten phaku bezala.

Nourbaiten eskietan ikhousi libru ttipitto batez duntziak, lanak eman dereizku. Egingiala hersatu gira; bena auherretan.

Libriaz duntu gira bardin; jakin ere bai zertako, argitara ezarlek goure galthouari eztien ihardetsi. Eztie nahi orotzaz ezaguturik izan dadin haien bizi mouldia. Zokholergouaz bizi dira; zokholerek aldiz segretian ari behar, beren egitekouen burutzeko.

Zokholer horietarik bada haatik, gune batetan beno haborotan. Gehienak, Parisen dira. Han-heben badutie mithilak. Etche batek berak badutu lazpa-bost mila. Frantzia orotan barreaturik, esku makhila horik.

Haimbeste direnaz gañen, hedatutturik da segretia. Ere, pharte egiten ahal dugu, kountzentziako arrankurarik gabe.

Zeren ondouan dabilta? Oroz gañetik, besteri hounki egitia die tcherkhatzen. Beraiek ja hala diroie.

Ereiztiak, eztira bethi jouaiten nourat eta jouan behar belukie. Ez ezaguturik bethi, hil baten askazi hullanenak. Hurrun bizi dirate zoumbait; eztie deus ukhenen, atze bezala igaranen direlako.

Gorago aiphatu libri ttipiaren egilek, hurrunian bizi diren askazi horien bilha ebiliren dira, beren zuzenetan sar-erazteko. Berek diroien bezala, badeia deus chuchenagorik? Aithor die haatik eztutiela tribunalak oro althe ukhen, etzaiela zoumbaiti agrada izan haien bizi mouldia.



Beren librian, esku makhiler usutto arratzen deie, kountzentziako arrankurarik gabe zokhokan aritzen ahal direla. Libru hatsarrian, hitz larritan ezari dien gomendiak ere, zerbait duda emaiten ahal du : *hounki egin, nahi diena erran dezen.*

Eztira, hourak ere, dohañik lanian ari. Noula bizi bestelan? Ountsa ourintatzen dutie herrietako esku makhilak. Hurrunian bizi den azkaziari jiten ahal zaiona, ezteia lau-bost mila libera-etara heltzen ; ukhuru egonen dira. Ereizte phartiak loditto izan behar, ihizera jouaiteko.

Ediren direia tcherkhatzen ziena ; zoumbat jiten zaion erran aitzinetik, poulizia bat sina-eraziren deie. Izkiribu horri esker, jiten zaion *herenaz* jabe dirate.

Zenthu denaren askazi hullan ediren dienari, bere phartetako 30 mila liberaren altia jiten zeiona ; erran delako zokholerek, phakutako, izkiribuz 10 mila libera ezagut-eraziren die.

Ezpalitz ekharria heren horren emaitera, eliroie deusetzaz pharterik egin. Deus gabe bara leite. Bena ere, 20 mila liberaren eraikiteko esparantchan, gogotik 10 mila liberaren zordun jariren da. Ezta batere gaichki elkhiten ; ez eta ere haren edireiliak. Horiek, jiten zaienaren bost gerren phartia esku makhilari emanen deie, esku makhila salhazaliari.

Berak Parisen egoiten beitira, arartekaririk gabe, eliroie jakin analmer igaraiten den bazterretan. Hanitchko hiri eta herrietan, meriako segretaria edo notari bat die arartekari bezala. Arartekariak, alhargun haurgabe eta solt hatuduner, begia etchekiten du. Hurrunian bizi deia askazi hullan bat edo beste; hatudana hil den bezain sarri, Pariserat izkiribaturen du.

Houna orano arartekarier eginik diren gomendu elibat.

1. *Izkiriba arraheinki, hil denaren aitaren edo amaren gaintiko askaziak baizik eztirenian ezaguturik.*



Haurrik eta arrahaurik gabe, aita eta ametariklandan, hiltzen denaren houn tarzuna, aitaren eta amaren gaintiko askazietarat badoua; eta erdizka, legiaren arabera, phartekatze hori.

Agitzen dena: hil denak azkentzia egin dian lekhian, ez gainti bateko askazien baizik ezaguturik izatia; hurruneke beitzatian, sortzez, aita edo ama. Zenthu denak eztuke egin ordeñurik. Haren houtarzunaz jabeturen dira askazi ezagunak.

Nourbaitek, gaiza horrez Parisient zokholorer pharte egiten dia segretian; ihizlariak bertan hurrunian izaten ahal diren askazien ondouan ebiliren dira; haier gainti-eraziren ereiztiaren erdia, paper bat sina erazi ondouan.

2. *Izkiriba, aitaren eta amaren gaintiko askazi zombait ezaguturik izana gatik, ouste denian eztirela oro ezaguturik.*

Ezta aski bi gaintietako askazi zombaitem ezagutzia. Ereiztia, hullaneenetara badoua.

Gainti bateko edo besteka askazi ezaguturik direnak beno askazi hullanago bat bizi deia noumbait; zila dadiala, er dia jinen zaio. Ez izanik ere askazi ezagutiak beno hullanagorik; bardin hullan denik edireiten bada, horik bardin pharteliant dirate. Zokholerek, eskiak ourintatzen ahal dutukie, loditto delarik hatia.

Agitzen da, osaba edo tanta, osaba handi edo tanta handi baten, ezkontzez nourapait hurrun jouaitia, eta han familiatzia. Lekhukouek, etcherik hurrun jouanaren haur eta arrahaurrak eztutie ezaguturen; eztakikie, badienez ere beste askazirik.

Ere, ukheitzia beren artian phartituren die, federik hoberenian. Diren lekhuko esku makhilari esker, egurukitzen etzien ereter lagun zombait agerturen zaie. Ezpeteie plazerik eginen!

3. *Izkiriba, ordeñu buru ezaririk izan den bet eztenian ageri, ordeñazaliaren hiltzeko phuntian.*



Hatudun batek, eztianian lehen belhañeko askazirik, bere hountarzunga uduri zaionari utz dioke : oso edo pharteka.

Ezta bortchatu oihustatzera nouri zerutzten dian. Nourbaiti ordeñatzen du pharte bat; eta nourbait houra, ordeñazalia den lekhotik hurrun badoua, bere hounki egilia bizi delarik Eztu jiterik egurikiren.

Bena Parisient zokholeren esku makhilak, jakin duke noula eginik izan den ordeña ; ordeñazalia hil deia bai, arrount Pariserat izkiribaturen du.

Beste izkiribatzeke paradarik agit deite; hala nouia, ereizte bat phartekaturik denian : batek ukhenen du gozamina; bestiak zola. Zolaren jabe eginik izan dena, ments date gozamendunaren hiltzeko phuntian.

Hountan baratzen gira. Bada beste alhagiarik; bena mardoehenak igaran dutugu algarren ondozka.

Houna orai, zokhokagiez kampakoko beste gomendu zombait. Lotkhia houn bat zilatu deia; demborarik galdu gabe, behar date Pariserat izkiribatu. Izkiribatzeke lehiatiago eta hobe. Jo telegrafa bardin.

Igor, bai zenthu denaren, bai eta haren aitaren eta amaren izenak; nouiz eta noun sorthu eta hil den; noun ezkontou diren aita eta ama.

Galtha, ahal bezain ezabaki, eia ordeñurik egin dianez, zerisko hountarzun dian begistatzen den alhargun alharguntsa haurgabiak eta soltak.

Ez gibelt, gastu zerbait egin behar izanik ere. Oro bardinturik dirate, khausita izan, ala ez izan.


Parisient ihizlariak, herrietako arartekari zombaiti, bederazka 22 mila libera etara artio eman ukhen die. Khountu hortara, beraietako 80 mila liberaz goiti baizien. Sos handia! Emaiten diana, bethi 200 liberaz goitiko souma.

Ezta haatik ilhorririk gabe, ararteka rigoua hori; finazia galthatzen du. Egia da segretia segurtatzen




deiela Pariseko jaunek; leterak ere, hala nahi badie, gibel igorriren deitze.

Horra zokholeren segretia zabaltucherik; bost mila artekani badie; beste best milak, gutienik, ezaguturen die haien hizi-mouldia. Ounhestle guti dukie.



### ISTORIA ETA ERASI



**J**ujiaren aitzinian : Jaon jujiak Pette Buruluzi :  
« Ezkounturik zireia? — Pettek : « Bai Jaona. »  
— Jujiak : « Nourekin? » — Pettek : « Ene emaztiarekin, Jaona. » — Jujiak : « Hala eia? Ezagutzen duzu arren nourbait gizonekin ezkounturik? »  
— Pettek : « Bai Jaona. » — Jujiak : « Eta nour othe? » — Pettek : « Ene arreba, Jaona. »

\*  
\*  
\*

Merkhatu egun batez, horra zen Kadet Alzurukutarra Maulerat gazna handi bat biesetan. *Octroi* delakoaren zaiñak erraiten dero behar diala, bere gaznarekin hirian sartzeko, bi sos phakatu. Kadetek holakorik eztu nahi entzun ere. Hortarik hasten dira aharran eta jentia biltzen da, batak Kadeten althe bestiak kountre; kountrestazaletarik bat jaun sosduna zen eta harek erraiten dero : « Adiskidia phaka ezazu bi sos, besteñaz berbal bat bādukezu eta hora bi sos beno haboro khostako zaizu. » — Kadetek ihardesten deio : « Nahi duzia jokhatu hogeia libera, zuk jauna, igaraiten nizala ene gaznarekin, sos bat ere phakatu gabe, eta berbalik ukhen gabe? » — « Ez etz. » — « Bai etz! » Eskiak tinkatzen dutie, hogeia libera



ezarten gizon baten eskietan eta goure Alzurukutarra, bide bazterrian jar eta hasten da ousoukiz bere gaznari. Hantik oren erdi bat gabe gazna oro tripan barnen zian. Chutitu eta erri bedera eginik jaunari buruz eta *octroi*-zaiñari, joan zen *Antonieniala* irabazi hogei liberakotik pharte baten igortera; bere adiskide elibatekin han topatu zian, gaznari bere barneko bidiaren leñtherazteko. Halerik ere baratu zeion gazna saldu balinbazukian beno sos gehiago.

\*  
\* \*

*Phetiri* sos beharrian beita, badoa *Allande* bere aizoaren gana, gai batez, diharu bouchi baten jesaitera. Bortha leihoak tink tinka zerraturik argiak hilik, oro oherat joanik dira aizotegian. Halere, *Phetiri* atrebitzen da giltzarrapo chilotik oiuhu egitera: « *Allande* hoou, lo hiza hoou? » — « Zer da, zer da? » dio *Allandek*. « Bahutukia berrogei pistola eni pherestatzeke behi chahaldun hat feidan eros ahal dezan? » — Kampotik egin oiuhu horrek ukheiten du ihardeste hau barnetik: « Lo nuk! »

\*  
\* \*

*Maider Mithikiltarra* heltzen da Mauleko merkhatialat, bere astoa baratzeko lantzarek kargaturik. Hiriaren sargian, buru egiten du jaun aizinant bateki eta arrount astoa orroaz hasten da. Jaunak erri egin nahi beitu erraiten dero emaztettoari: « Zer egin derozu, *Maider*, zoure astoari, hola orroaz ariazteko. » — « Jauna, erraiten du *Maiderrek*, bera uduri bat aitziniala jiten zaionian, bethi hola egiten dizu. »

\*  
\* \*

Behin baziren bi gizon, bata konkorr bestia begibakhotch. Goiz batez, konkorra bazoan bordalat begibakhotcharen etche aitzinia gainti. Begi-bakhotchak



ikhouston du eta erraiten deio: « Baho goizik bordalat *anho* bizkarrian. » — Bestiak arrount: « Bai, goiz izan behar dik, ezi eztuk zien etchen orano *leiho bat* baizik zabalik. »

..

Johane Larraintarra soldado da. Errejimentuko kolonelak galthatzen deio: « Errak to, Uskalduna, badauka erraitekorik ukheiten duzien jatekoaren gannen? » — « Ez, jaun kolonela, dio Johanek. » — Gehienak aitzina: « Noula zathikatzen deizie aragia? Ez othe zaizie agitzen alkharri sogitia, zouñek dutuzien zathiak handiago eta zouñek tchipiago? » — « Ez, jaun kolonela, ihardesten du Johanek, zathiak oro tchipi tutzu. »

..

*Pottolo*, lau ourthetako haurrak, ikhouston du arotza burduñari thu egiten eta galthatzen deio zertako hola egiten dian. « Jakiteko eio burduña doi bero dudanez, » erraiten deio arotzak. Gaian berian, ezna egosten ari delarik, *Pottolok* thu bat egiten du bertziala. Amak, khechaturik, beharralteko bat emaiten deio eta erraiten: « Zer ari hiz, haurra, ala ertzotzen? » — « Nahi nizun jakin eia ezna doi bero zenez! »

..

Behin batez, eztei bazkari batetan, laborari gaizo bat, franko gibela eta aphur bat moude-gaitza, jargiarik gabe agitu zen eta ari zen chokho baten ezin edirenez mahañari buruz jarteko. Han bazen jaun kargulant bat urgullutsia, jente chehiari goratik sogilia, eta nahiz erri eginerazi ezteiliarrer, jaun hora chutitu zen eta joan zeion laborariari ostikata



baten bizkar zolan emaitera zioalarik trufa batekin :  
« To ; hor diala hire jargia ; jar hadi hortan gañen. »  
Laboraria, ahalketurik, badoa ichil ichila, zokho  
batetara jartera eta jan edan houn elibaten iretstez  
bere afrountiaren behin behin ithotzera. Bazkaria  
urhentu denian, ezteiliarrak oro imourrik hobere-  
nian zirelarik, goure laboraria hullantzen zaio kar-  
gulantari gibelitik eta boullta gaitz batekin emaiten  
dero ostikata bat... nounbait, erraiten deiolarik ber  
demboran : « Laboraria phakazale houna duk ; to, hor  
diala bazkal aitzinian pherestatu heitadan jargia ! »  
Egitate horrek ez zian segur imourra ihouri ere gais-  
toerazi, kargulantari baizik.

..

Merkhatutik etcheratkoan gizon ordi bat, bide  
bazterreko zuhañ bati besarka lothurik zegoen, arte-  
tarik khantuz eta dantzaz haren ungueria egiten ziala-  
rik. Igaraille berantiar bati oihu egiten dero : « Errak  
to, errak to, ala hink, hinka, hinkatzia, errak to,  
othoi erran izak, erran izadak noun den beste gainti,  
bidiaren beste gaintia. » — Igarailiak erakousten  
deio. Gizon ordia gaitzen zaio, oihuz diolarik :  
« Debriaren ourdia, nitaz fou, foutitu nahi hiza ?  
Hor nundian aitzinetik eta galthatu dudanian noun  
zen bidiaren beste gainti gaintia. erran ditade he,  
heben zela. Debriaren ourdia hi, ourdia : ourdia,  
ourde ge... gezurtia, hi !... »








MAIATZA edo EPHAILA


Eg luzatzen dira oren eta laordenez




- ☉ a. o., 5<sup>n</sup>, eguerdi eta 17<sup>m</sup>.
- ☽ a. l., 12<sup>n</sup>, eguerdi, eta 54<sup>m</sup>.
- a. b., 19<sup>n</sup>, arrastiriko or 1 eta 51<sup>m</sup>.
- ☾ l. l., 27<sup>n</sup>, goizanko or 1 eta 37<sup>m</sup>.

ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren et 1/4, 22<sup>a</sup> drano.



- ☉ a. o., 4<sup>n</sup>, goizanko or 1 eta 34<sup>m</sup>.
- ☽ a. l., 11<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 52<sup>n</sup>.
- a. b., 17<sup>n</sup>, arratseko 11<sup>or</sup> eta 37<sup>m</sup>.
- ☾ l. l., 25<sup>n</sup>, arratseko 6<sup>or</sup> eta 52<sup>m</sup>.




1 Neskanezun.	J. Filipe et Jak. Ap.	1 Asteharte.	s. Kler.
2 <b>Igante.</b> 3.	s. Atanasi.	2 Astiz. <i>IV Th. B.</i>	s. Poteñ.
3 Astelehen.	Da Khurutze.	3 Ostegun.	s <sup>a</sup> Klotilda.
4 Asteharte.	s <sup>a</sup> Monika.	4 Ostir. <i>IV Th. B.</i>	s. Frantzes K.
5 Astizken.	s. Pio V.	5 Nesk. <i>IV Th. B.</i>	s. Bonifazi.
6 Ostegun.	J. Johane Eb. B. L.	6 <b>Igante.</b> 1.	TRINITATE.
7 Ostirale.	s. Stanizlaz.	7 Astelehen.	s. Majan.
8 Neskanegun.	J. Migel. agert.	8 Asteharte.	s. Medart.
9 <b>Igante.</b> 4.	s. Gregori Na.	9 Astizken.	s <sup>a</sup> Pelajia.
10 Astelehen.	s. Antonen.	10 Ostegun.	EGUBERRI.
11 Asteharte.	s. Oriens.	11 Ostirale.	J. BARNABE, <i>ap.</i>
12 Astizken.	s. Nere eta Akil.	12 Neskanegun.	s. Johane Fag.
13 Ostegun.	s. Jenio.	13 <b>Igante.</b> 2.	s. <i>Antoni, Pad.</i>
14 Ostirale.	Johane Sala, d.	14 Astelehen.	s. Basila.
15 Neskanegun.	s. Eutrope.	15 Asteharte.	s <sup>a</sup> Jermena.
16 <b>Igante.</b> 5.	s. Johane Nep.	16 Astizken.	s. Franzes R.
17 Astel. <i>Errogaz.</i>	s. Paskal.	17 Ostegun.	s <sup>a</sup> Marina.
18 Asteharte.	s. Venanzio.	18 Ostirale.	J. BIHOTZ SAK.
19 Astizken.	s <sup>a</sup> Pudenziana.	19 Neskanegun.	s. Jervasi eta Prot.
20 Ostegun.	SALBATORE	20 <b>Igante.</b> 3.	s <sup>a</sup> Juliena Falk.
21 Ostirale.	s. Petiri Zel.	21 Astelehen.	s. Louis Gonz.
22 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Kiteria.	22 Asteharte.	s. Pauleñ.
23 <b>Igante.</b>	s. Ubalde.	23 Astizken.	s. Eusebio.
24 Astelehen.	A. B. Laguntz.	24 Ostegun.	J. JOHANE BA.
25 Asteharte.	s. Gregori VII.	25 Ostirale.	s <sup>a</sup> Eurosia.
26 Astizken.	s. Filipe Neri.	26 Neskanegun.	s. Johane eta Paule.
27 Ostegun.	s <sup>a</sup> M. Mad. P.	27 <b>Igante.</b> 4.	s. <i>Prosper.</i>
28 Ostirale.	s. Agosti.	28 Astelehen.	s. Irene.
29 Neskanegun.	s. Garzia.	29 Asteharte.	J. PETIRI eta P.
30 <b>Igante.</b>	PHENTEKOSTE.	30 Astizken.	J. Phaoleren oih.
31 Astelehen.	s <sup>a</sup> Anjela.		






## UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1<sup>ez</sup>.


- ⓐ a. o., 3<sup>n</sup>, eguerdi eta 26<sup>m</sup>.  
 ⓑ a. l., 10<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 7<sup>m</sup>.  
 ⓒ a. b., 17<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 54<sup>m</sup>.  
 ⓓ l. l., 25<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 54<sup>m</sup>.

## AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2




- ⓐ a. o., 1<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 23<sup>m</sup>.  
 ⓑ a. l., 8<sup>n</sup>, eguerdi eta 19<sup>m</sup>.  
 ⓒ a. b., 15<sup>n</sup>, gaiherdi eta 4<sup>m</sup>.  
 ⓓ l. l., 24<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 16<sup>m</sup>.  
 ⓔ a. o., 31<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 17<sup>m</sup>.




1 Ostegun.	s. Tierri.	1 <b>Igante.</b> 9.	J. Petiri katiet.
2 Ostirale.	A. B. BIZITAZ.	2 Astelehen.	s. Alfonso, Lig.
3 Neskanegun.	s. Gillen.	3 Asteharte.	J. Ezteber. edir.
4 <b>Igante.</b> 5.	J.K. ODOL PREZ	4 Astizken.	s. Dominiche.
5 Astelehen.	s. Zirile eta Met.	5 Ostegun.	A.B.M. Elbur.
6 Asteharte.	s. Trankile.	6 Ostirale.	J. K. Transfig.
7 Astizken.	s. Marzial.	7 Neskanegun.	s. Kajetan.
8 Ostegun.	sa Beronika.	8 <b>Igante.</b> 10.	s. Ziriako.
9 Ostirale.	sa Elisabet, p.	9 Astelehen.	s. Jermeñ.
10 Neskanegun.	Zazpi anaie m.	10 Asteharte.	s. Laorenz, m.
11 <b>Igante.</b> 6.	s. Pio.	11 Astizken.	s. Tiburze.
12 Astelehen.	s. Johane G.	12 Ostegun.	sa Klara.
13 Asteharte.	s. Anaklet.	13 Ostirale.	sa Radegonda.
14 Astizken.	s. Bonaventura	14 Neskanegun.	s. Eusebi.
15 Ostegun.	s. Johane Maj.	15 <b>Igante</b> 11.	A.D.M. ZELIALA.
16 Ostirale.	A.D.M. KARM.	16 Astelehen.	s. Rok.
17 Neskanegun.	s. Aletsis.	17 Asteharte.	sa Emilia.
18 <b>Igante.</b> 7.	s. Kamille.	18 Astizken.	sa Elena.
19 Astelehen.	s. Bzente Paolo.	19 Ostegun.	sa Filomena.
20 Asteharte.	s. Filibert.	20 Ostirale.	s. Bernat.
21 Astizken.	sa Pratseda.	21 Neskanegun.	s. Julien Lesk.
22 Ostegun.	sa M. Madalena	22 <b>Igante.</b> 12.	s. Joakimo.
23 Ostirale.	s. Apolinari.	23 Astelehen.	s. Filipe Ben.
24 Neskanegun.	s. Henrik.	24 Asteharte.	J. BARTOL., ap.
25 <b>Igante.</b> 8.	J. JAKOBE, ap.	25 Astizken.	s. Louis erreg.
26 Astelehen.	sa Aña.	26 Ostegun.	s. Filibert.
27 Asteharte.	s. Galatori.	27 Ostirale.	s. Jusef. Kal.
28 Astizken.	s. Nazari eta Zelze.	28 Neskanegun.	s. Agosti.
29 Ostegun.	sa Marta.	29 <b>Igante.</b> 13.	J. Joh. Lephom.
30 Ostirale.	s. Abdon.	30 Astelehen.	sa Rosa, Lima.
31 Neskanegun.	s. Inazio, Loiala.	31 Asteharte.	s. Remoun N.





BURUILA edo SETEMER


Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- ☉ a. l., 6<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 5 3<sup>m</sup>.
- ☉ a. b., 14<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 18<sup>m</sup>.
- ☽ l. l., 22<sup>n</sup>, arratseko 6<sup>or</sup> eta 40<sup>m</sup>.
- ☾ a. o., 29<sup>n</sup>, arrastiriko 1<sup>or</sup> eta 14<sup>m</sup>.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.




- ☉ a. l., 6<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 5 3<sup>m</sup>.
- ☉ a. b., 14<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 22<sup>m</sup>.
- ☽ l. l., 22<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 13<sup>m</sup>.
- ☾ a. o., 28<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 16<sup>m</sup>.




1 Astizken.	s. Bizente, ap. m.	1 Ostirale.	s. Remi.
2 Ostegun.	s. Eztebe, erreg.	2 Neskanegun.	<i>Ainguru Begir.</i>
3 Ostirale.	s. Lizier.	3 <b>Igante.</b> 18.	ARRUSARIOA.
4 Neskanegun.	sa Franz. Ch.	4 Astelehen.	s. Frantzes, As.
5 <b>Igante.</b> 14.	s. <i>Laorenz J.</i>	5 Asteharte.	s. Venzeslaz.
6 Astelehen.	s. Onesiforo.	6 Astizken.	s. Bruno.
7 Asteharte.	s. Zebero.	7 Ostegun.	s. Fide.
8 Astizken.	A. B. SORTZIA.	8 Ostirale.	sa Birjita.
9 Ostegun.	s. Omer.	9 Neskanegun.	s. Denis.
10 Ostirale.	s. Nikolas.	10 <b>Igante.</b> 19.	<i>A. B. Amalarz.</i>
11 Neskanegun.	s. Hiazinte.	11 Astelehen.	sa Sabina.
12 <b>Igante.</b> 15.	A. B. <i>Izen Saint.</i>	12 Asteharte.	sa Daonina.
13 Astelehen.	sa Ujenia.	13 Astizken.	s. Edouar.
14 Asteharte.	Dna Khurutze.	14 Ostegun.	s. Kalista.
15 Astiz. <i>IVTh. B.</i>	s. Nikomede.	15 Ostirale.	s. Teresa.
16 Ostegun.	s. Ziprien.	16 Neskanegun.	s. Bertran.
17 Ostir. <i>IVTh. B.</i>	s. Franz. Zaor.	17 <b>Igante.</b> 20.	<i>A. B. Garbitarz</i>
18 Nesk. <i>IVTh. B.</i>	s. Jusef Kup.	18 Astelehen.	J. LUKAS, Eb.
19 <b>Igante.</b> 16.	<i>A. B. Dolor.</i>	19 Asteharte.	s. <i>Grat.</i> Olor.
20 Astelehen.	s. Estache.	20 Astizken.	s. Johane K.
21 Asteharte.	J. MATHIU, Eb.	21 Ostegun.	sa Ursula.
22 Astizken.	s. Maur.	22 Ostirale.	s. Petiri, Alk.
23 Ostegun.	sa Tekla.	23 Neskanegun.	s. Leotade.
24 Ostirale.	A. B. <i>Librazalia.</i>	24 <b>Igante.</b> 21.	s. <i>Rafael</i> , ark.
25 Neskanegun.	s. Aostinde.	25 Astelehen.	s. Krispi.
26 <b>Igante.</b> 17.	s. <i>Tomas Vil.</i>	26 Asteharte.	s. Evarista.
27 Astelehen.	s. Kosme eta Dam.	27 Astizken.	s. Fronton.
28 Asteharte.	s. Faoste.	28 Ostegun.	J. SIMOUN, ap.
29 Astizken.	J. MIGEL, ark.	29 Ostirale.	sa Eusebia.
30 Ostegun.	s. Jeronimo.	30 Neskanegun.	s. Kazieñ.
		31 <b>Igante.</b> 22.	<i>A. B. Patron.</i>






AZAROA edo GOROTZILA  
Egunak llaburtzen dira orenez.




- ☾ a. l., 4<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.
- ☉ a. b., 13<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 27<sup>m</sup>.
- ☽ l. l., 20<sup>n</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eta 38<sup>m</sup>.
- ☽ a. o., 27<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 1<sup>m</sup> 1<sup>a</sup>n.

ABENTIA edo NEGILA  
Eg. llaburtzen dira 27<sup>min</sup>, 22<sup>no</sup>.



- ☾ a. l., 4<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 22<sup>m</sup>.
- ☉ a. b., 12<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 8<sup>m</sup>.
- ☽ l. l., 20<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 27<sup>m</sup>.
- ☽ a. o., 26<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 39<sup>m</sup>.



1 Astelehen.	DONISANTORE.	1 Astizken.	s. Eloi.
2 Asteharte.	<i>Purg. Arimak.</i>	2 Ostegun.	sa Bibiana.
3 Astizken.	s. Hubert.	3 Ostirale.	s. <i>Frantzés Zab.</i>
4 Ostegun.	s. Charles Bor.	4 Neskanegun.	sa Barbara.
5 Ostirale.	s. Zakaria.	5 <b>Igante.</b>	<i>Abentuko 2<sup>a</sup></i>
6 Neskanegun.	s. Leonart.	6 Astelehen.	s. Nikolas.
7 <b>Igante.</b> 23.	<i>Errelikia s<sup>k</sup>.</i>	7 Asteharte.	s. Ambrosi.
8 Astelehen.	Lao Martirak.	8 Astizken.	A B, KONTZEP.
9 Asteharte.	s. Teodoro.	9 Ostegun.	s. Jeronze.
10 Astizken.	s. Andreu Av.	10 Ostirale.	sa Ulalia.
11 Ostegun.	J. MARTINE.	11 Neskanegun.	s. Daniel.
12 Ostirale.	s. Marti.	12 <b>Igante.</b>	<i>Abentuko 3<sup>a</sup>.</i>
13 Neskanegun.	s. Stanizlaz K.	13 Astelehen.	s. Melkiade.
14 <b>Igante.</b> 24.	ELIZEN SAKR.	14 Asteharte.	s. Arzene.
15 Astelehen.	sa Jertruda.	15 Astiz. <i>IV Th. B.</i>	s. Mismeñ.
16 Asteharte.	s. Edmon.	16 Ostegun.	s. Euzebio.
17 Astizken.	s. Gregori T.	17 Ostir. <i>IV Th. B.</i>	s. Lazaro.
18 Ostegun.	s. Odoñ.	18 Nesk. <i>IV Th. B.</i>	s. Gazieñ.
19 Ostirale.	sa Elisabet Ong.	19 <b>Igante.</b>	<i>Abentuko 4<sup>a</sup></i>
20 Neskanegun.	s. Felis, Valesi.	20 Astelehen.	s. Urbeñ.
21 <b>Igante.</b> 25.	<i>A. B. Eskentzia</i>	21 Asteharte.	J. TOMAS, Ap.
22 Astelehen.	sa Zezila.	22 Astizken.	s. Flavieñ.
23 Asteharte.	s. Klement.	23 Ostegun.	s. Onorat.
24 Astizken.	s. Johane Kh.	24 Ostirale.	sa Delfina.
25 Ostegun.	sa Katalina.	25 Neskanegun.	EGUBERRI.
26 Ostirale.	s. Petiri, Alk.	26 <b>Igante.</b>	J. EZTEBE, m.
27 Neskanegun.	s. Virjile.	27 Astelehen.	J. JOHANE, Eb.
28 <b>Igante.</b>	ABENTUKO 1 <sup>a</sup>	28 Asteharte.	<i>Haor Inoz.</i>
29 Astelehen.	s. Saturni.	29 Astizken.	s. Tomas Kant.
30 Asteharte.	J. ANDREU, Ap.	30 Ostegun.	s. Manzuet.
		31 Ostirale.	s. Zilbestre.





OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 <sup>an.</sup>
UDA hasten da arramaiatzeko	21 <sup>an.</sup>
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 <sup>an.</sup>
NEGIA hasten da abentuko	22 <sup>an.</sup>




MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK


MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruila 6<sup>n</sup> ; abentu 10<sup>ik</sup> landanko astehartian. — ATHARRATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26<sup>n</sup>. — GARRUZEN : **m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1<sup>n</sup> *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3<sup>n</sup> *eta* aphilil. 15<sup>n</sup>. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh., amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzinako astizk<sup>n</sup>, *eta* abentu 8<sup>n</sup>. — ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen asteh<sup>n</sup>. — OLOROUN : **m.**, ostir. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1<sup>n</sup> ; *eta* buruila 8<sup>n</sup>, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg., **f.**, Gorozum. lehen asteleh<sup>n</sup>, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizk<sup>n</sup> *eta* urrietako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.







# Eldirengia



I. Otomobilez... Jinkoa ganat.....	25
II. Lamiñen denboran.....	27
III. Gobernamentuko eskolez.....	29
IV. Laborarier :	
1. Eznagiak (edo : laiteries coopératives).....	36
2. Zokholer.....	41
V. Istoria eta erasi.....	48

